



ENPRESAK SORTU ETA GARATZEKO PROZESUAN LAGUNTZEKO PROGRAMA

II.ERANSKINA: Enpresak sortzeko prozesuan enpresa proiektuei laguntza ematea: TXEKIN - BIDERAGARRITASUN PLANA.

2020rako JARRAIBIDEAK.

1. ARAUDIA

“Enpresak sortu eta garatzeko prozesuan laguntzeko programaren” oinarri aldaketa eta II., III. eta IV. Eranskinetako dirulaguntzen 2020ko deialdia. (GAO 130 zk 2020ko uztailearen 10ekoa)

“Enpresak sortu eta garatzeko prozesuan laguntzeko programaren” oinarri aldaketa eta 2018ko deialdia. (GAO 74 zk 2018ko apirilaren 18koa)

“Enpresak sortu eta garatzeko prozesuan laguntzeko programa” Diputatuen Kontseiluaren 2017ko ekainaren 27ko erabakiz onartu zen (GAO 127 zk 2017ko uztailearen 4koa)

2. JARDUERA HAUTAGARRIAK

Pertsona edo talde sustatzaileari laguntza eman ideia umotzeko eta “BIDERAGARRITASUN PLANA” egiteko.

3. ENTITATE ONURADUNAK

Entitate onuradunak izango dira:

- ekintzaileei aholkularitza eta laguntza teknikoa emateko zerbitzuak homologatzeko oinarriak arautzen dituen 437/2004 Foru Arauaren edo hori ordezkatzeko duen araudiaren bidez homologazioa lortu duten entitateak; eta
- BIDERAGARRITASUN PLANA Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko, Landa Ingurune eta Lurralde Orekako Departamentuak aurreikusitako EREDUAREN arabera egiten dutenak, BIDERAGARRITASUNAPLANA aplikazioaren bidez.
(<http://bideragarritasunaplana.net/planv/login.php>)

4. DIRU LAGUNTZEN ZENBATEKOA

Kostu hautagarrien % 100 arte, oinarritzat hartuta modulu sistematik ondorioztatzen diren kostuak.

- Besteen konturako langileak, Gizarte Segurantzako kotizazioan hobaririk gabekoak: 33,70 €/orduko
- Besteen konturako langileak, Gizarte Segurantzako kotizazioan hobaridunak: 25,74 €/ orduko
- Langile autonomoak: 30,29 €/ orduko

5. URTEKO DEIALDIAN ESKAERA

<http://sustapena.gipuzkoa.eus/kudeaketa>

5.1. 2018. URTEKO DEIALDIAN ESKAERA: PROZEDURA

- Urteko deialdian eskaera ondoko aplikatiboan egingo da: <http://sustapena.gipuzkoa.eus/kudeaketa>.
- Entitate homologatuek, 2020ko urriaren 19an eguerdiko 12.00etan baino lehen, ondokoa egin beharko dute:
 - proiektuaren memoria web orrian bete
 - eskatutako dokumentuak erantsiko dituzte.

Homologatutako entitateek ezinbestez egin behar dute ESKAERA, laguntza emateko eta ondoren emandako zerbitzuak kobratzeko



5..2. ESKATUTAKO PROIEKTUAREN MEMORIA

- Entitateek proiektu OROKOR BAKARRARI emango diote alta, honako atalean: “**Enpresak sortzeko prozesuan enpresa proiektuei laguntza ematea –TXEKIN- Bideragarritasun Plana.**”

Proiektu horren barruan sartuko da BIDERAGARRITASUNAPLANA metodologiari jarraituz egin beharreko bideragarritasun plan kopurua.

Eskaera kuantifikatzeko, **2020an egin beharreko bideragarritasun planen zenbatekoaren aurreikuspena** egingo da.

- Proiektuaren memorian, berariaz jasoko da jarduera bat datorrela “beste proiektuekiko osagarritasuna”rekin eta/edo enpresak eta enplegua sortzeko estrategiekin.
- Eta agiri hauek aurkeztuko dira:
 - 2020an egingo diren planen aurreikuspena
 - Ardurapeko adierazpena
 - Minimis ardurapeko adierazpena (enpresak)

6. PROIEKTUEN KUDEAKETA, JARRAIPENA, ETA JUSTIFIKAZIOA - TXEKIN

Ondoko aplikatiboan egingo da:

<http://www.gipuzkoa.eus/ikasekin>

6.1. BIDERAGARRITASUN PLANA ESKAERA

➤ **Pertsonaren eginbeharrak:**

- Kreditu birtuala bideragarritasun plana egiteko eskatu.
- Aukeratutako entitate homologatuari zerbitzua eskatu eta **ekintzailetasun kreditua erabile**; horretarako, onuradun pertsonak honako hau egin behar du pasahitza jasotakoan:
 - **Zerbitzua eskatu** aukeratutako entitate homologatuari
 - **Lehenengo ordainketa birtuala (%50) egin** zerbitzua jasotzen hasitakoan
- Zerbitzua bukatutakoan, 2. ordainketa birtuala egin beharko du eta entitate homologatuak zuritutako orduekin ados dagoela adieraziko du sinadura bidez zuribide gisa.
- Momentu horretan pertsonak behin betiko bideragarritasun plana jasoko du. Dokumentuak proiektua finantzatzen eta tutorizatzen duten entitate eta programen logoak edukito ditu,
- Eman zaion kreditu birtuala 2021ko apirilaren 26ra arte erabil ahalko da.

➤ **Entitate homologatuak** egiaztatu behar du:

- Proiektua **TXEKIN programaren onuraduna** dela:
 - Gipuzkoan ezarriko den eta sustatzailearen jarduera ekonomiko nagusia bilakatuko den enpresa proiektu bat aztertu eta garatu nahi duten pertsonen sustatutako proiektua izatea.
 - Ezingo da proiektuaren sustatzaile izan azken bi ekitalditan antzeko ezaugarriak dituen jarduera bat bere kontura garatu duen inor.
 - Bideragarritasun plana jarduera ekonomikoa hasi baino lehen egin beharko da.
- **Pertsonak kreditua daukala** zerbitzuen ordainketa birtuala egiteko.

➤ **Bideragarritasun plana** 2004ko maiatzaren 26ko 437/2004 Foru Aginduan aurreikusitako metodologiaren eta kalitate estandarren arabera egin beharko da.



6.2. 2020ko PROIEKTUAK ZURITZEKO PROZEDURA

Enpresak sortu eta garatzeko prozesuan laguntzeko programaren diru laguntzen 2020ko deialdiako II. eranskinaren arabera (Enpresak sortzeko prozesuan enpresa proiektuei laguntza ematea – Bideragarritasun Plana¹⁾) eskaera egin duten entitateek **INDIBIDUALKI ZIURTATUKO ETA ZURITUKO DUTE EGITASMOAREN AMAIERA** bideragarritasun planaren bat amaitzen duten bakoitzean. Horretarako e-maila bidaliko dute sustapena.ekintzaitetasuna@gipuzkoa.eus helbidera honako hau zehaztuz:

- Entitatearen izena.
- Proiektuaren izena.
- Proiektu mota: TXEKIN- BIDERAGARRITASUN PLANA
- Urtea: 2020
- GAIA: **Egitasmoaren amaiera egiaztatzea eta zuritzea**

Bideragarritasun planaren amaiera ziurtatu aurretik, honako hauek egin beharko ditu:

- 1) **Bideragarritasun plan bakoitza amaitu duela jakinaraziko dio Departamentuari** <http://bideragarritasunaplana.net> aplikatiboaren bidez, landu duen berritasun planara amaitutzat emateko. Orduan sartuko dira proiektu bakoitza finantzatzen eta tutorizatzen duten entitate eta programen logoak.

Horretarako e-maila bidaliko dute sustapena.ekintzaitetasuna@gipuzkoa.eus helbidera honako hau zehaztuz:

- Entitatearen izena.
- Proiektuaren izena.
- Proiektu mota: TXEKIN- BIDERAGARRITASUN PLANA
- Urtea: 2020
- GAIA: **Bideragarritasun plana amaitzea** www.bideragarritasunaplana.net **webgunean**.

- 2) Amaiera txostena bete eta erantsi IKASEKINen honako hauek:

- Dok-1:EGITASMOAREN AMAIERA EGIAZTATZEA eta diru laguntzaren % 100eko kitapena eskatzea
- Dok-2:BEstelako Laguntzen Aitorpena
- Dok-3:Bideragarritasun plana egiteko erabili diren ORDUEN DESKARGUA. Horretarako, orduak zuritzea – bideragarritasun plana eredu erabili
- Dok-4: LAN EGOERA EGIAZTATZEA
- BIDERAGARRITASUNAPLANA metodologiaren arabera egindako **BIDERAGARRITASUN PLANA** (bideragarritasun planaren txostena eta ekonomia-finantza txostena).

- 3) Halaber entitate onuradunak dagokion **ORDAINKETA BIRTUALA** egin duela egiaztatuko du.

Entitateen gida (baita pertsona onuradunena ere) eta dokumentuak eskuragarriak WEB orrian:

<http://www.gipuzkoa.eus/eu/web/ekonomia/programak-eta-laguntzak/ekintzaitetza/txekin>

6.3 PROIEKTUAK ZURITZEKO EPEA

Oro har, bideragarritasun planak zuritu egin beharko dira, **BIDERAGARRITASUN PLANAREN aplikazioa bukatu eta itxi eta hilabeteko epean.**

- **2020ko uztailaren 29a:** 2020ko lehenengo 1. seihilekoan amaitutako proiektuak
- **2020ko urriaren 25a:** 2020ko irailaren 30a baino lehen amaitutako proiektuak,



7. “BIDERAGARRITASUNAPLANA” APLIKAZIOA

BIDERAGARRITASUNAPLANA aplikazioa erabiltzeko entitate homologatuek, aplikazioan sartzeko gakoak eskatu behar dituzte. Horretarako entitateek aplikazioan sartu eta erregistratu behar izango dute (BIDERAGARRITASUNAPLANA pertsona erabiltzailearen eskuliburua ikusi)

<http://bideragarritasunaplana.net/planv/login.php>

8. IRUDI KORPORATIBOA

Erakunde onuradunen betekizunak:

Erakunde onuradunek, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Ingurune Departamentuak diruz lagundutako proiektu edo jardueren sustapen eta finantzazioari publicitate egokia eman beharko dute, Aldundiaren erakunde-irudiaren bidez zein finantzazio publikoari eta esku-hartze publikoaren helburuari buruzko aipamenen bidez, horma-irudi, inprimatutako material, bitarteko elektronikoko edo ikus-entzunezkoetan, eta beste edozein euskarritan, edo komunikabideetan egindako adierazpenen bidez

Proiektuan sortzen diren dokumentuetan eta garatzen diren ekintzetan (hedapena, komunikazioa, informazioa, parte-hartzea, publizitatea, ikusaraztea etab.), **Departamentuak, eta Europar Batasunak, egitasmoari emandako laguntzaren eta sustapenaren trataera egokia** bermatzeko asmoz, edozein difusio, ikustarazte edo publikazio **egin aurretik** sustapena.ekintzaitetasuna@gipuzkoa.eus helbidera egindako euskarri/dokumentuen diseinu proposamena bidali beharko da.

(“logoak” eskuragarriak::

<http://www.gipuzkoa.eus/eu/web/ekonomia/programak-eta-laguntzak/ekintzaitetza/txekin>

9. BESTE DIRU LAGUNTZA BATZUK

Diru laguntza hauek **ez dira bateragarriak** izango beste edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatu, nazional, europar edo nazioartekok xede berarekin emandako beste diru laguntza, laguntza, sarrera edo baliabideekin.

***TXEKIN - Programak Europako Gizarte Funtza “EGF zure etorkizunean inbertitzen du”
finantzaketa du % 50ean.***